



---

# 2016

# Etxerat

Euskal  
Preso eta Iheslari  
Politikoen  
**Senide eta Lagunen  
Elkartea**

## urteko txostena

# 1. DISPERTSIOAREN DATUAK

## 1. 1 Azaro-abenduko datuak

laz bezala, euskal preso politikoaren kopurua apaldu bada ere, (2015 bukaeran 403 euskal preso politiko baziren 74 espetxeetan dispertsatuak) azpimarratu behar dugu askatasun horien gehiengo zabala kondena amaierengatik gertatu dela eta kasu gehienetan kondena luzeak. Nabarmendu behar da hala ere espetxeen zenbakia ez dela txikitu, ezta ere bisitak egiteko batez beste egin behar den kilometroen kopurua.

- ◆ **348** EUSKAL PRESO POLITIKO
- ◆ **345** EUSKAL PRESO POLITIKO **69** ESPETXEETAN DISPERTSATUAK
- ◆ **2** euskal preso politiko Euskal Herriko 2 espetxetan
- ◆ **266** euskal preso politiko Espainiar estatuko 42 espetxetan
- ◆ **75** euskal preso politiko Frantziar estatuko 23 espetxetan
- ◆ Euskal preso politiko **1** Portugalen
- ◆ Euskal preso politiko **1** Suitzan
- ◆ **4** adingabeko euren amekin dispertsatuak
- ◆ **3** euskal preso politiko gaixo larri espetxe arinduan

## 1.2 Trasladoak

2016 urtean, 51 traslado izan ziren :

- ◆ **23** estatu espainiarrean
- ◆ **19** estatu frantsesean
- ◆ **5** estatu frantsesetik estatu espainolera
- ◆ **2** estatu espainoletik estatu frantsesera
- ◆ **2** beste herrietan

Urte bukaeran, 2 euskal preso bakarrik daude Euskal Herriko presondegitan, biak larriki eri eta kideengandik isolatuak. Horra azaro-abenduko lekualdaketak:

- ◆ Azaroaren 3an **Oroz Mikel** Liancourt-etik Muret-era
- ◆ Azaroaren 3an **Etxeberria Jon** Liancourt-etik Uzerche-ra
- ◆ Azaroaren 8an **Txapartegi Nekane** Zurich-eko Gefängnis espetxera (Suitzan)

- ◆ Azaroaren 10ean **Zengotitabengoa Andoni** Monsanto-tik Vale de Judeus espetxera (Portagulen)
- ◆ Azaroaren 15ean **Aranalde Maite** Poitiers-etik Rennes-era
- ◆ Abenduaren 14an **Txibite Mertxe** Fleury-tik Soto del Real-era
- ◆ Abenduaren 14an, **Olabarrieta Iker** Huelva-tik Sevilla I-l-ra
- ◆ Abenduaren 19an **Lasa Sebas** Huelva-tik Villena-ra
- ◆ Abenduaren 28an **Labeaga Urko** Murtzia-tik Villabona-ra

### 1.3 Azaro-abenduko askatasunak

- ◆ Azaroaren 19an, **Lete Alberdi Jose Ramon, Azkoitia** – A-Lama-tik – 21 urtez ihesan, 15 urtez preso
- ◆ Azaroaren 24an, **Oiartzabal Anartz, Donostia** – Ocaña I-etik – 14 urte
- ◆ Azaroaren 26an, **Curto Saul, Bilbo** – Fresnes-etik eta Barajasera eraman izan ondoren – 4 urte
- ◆ Abenduaren 4an **Madina Tomas, Galdakao** – Foncalent-etik – 2 urte
- ◆ Abenduaren 13an **Etxaniz Julen, Donostia** – Castello II-tik – 8 urte
- ◆ Abenduaren 13an **Landaberea Arkaitz, Donostia** – Mansilla-tik – 8 urte
- ◆ Abenduaren 13an, **Gurrutxaga Oroitz, Orereta** – Irunen utzi ondotik – 4 urte t'erdia
- ◆ Abenduaren 15ean, **Agirre Oihana, Donostia** – Brieva-tik – 5 urte
- ◆ Abenduaren 21ean, **Balerdi Xabier, Donostia** – Herrera de la Mancha-tik – 24 urte
- ◆ Abenduaren 25ean, **Trenor Carlos, Donostia** – Ocaña II-tik – 9 urte

## 2. OSASUN ESKUBIDEA

Espetxeetako baldintzek, etengabeko tensioak eta kondenen luzapenak osasun arazo asko sortzen dizkiete presoek. Jadanik erri zirenak erabat sendatzea ezinezkoa dute, eta osasun ona zutenek patologia ezberdinak garatzen dituzte. Garbiketa eta janari arazoak, segipen eskasa, konfiantzazko medikuak ikusteko debekua,



etengabeko trasladoak, oztopo izugarri handiak dira eremu honetan senide, abokatu eta presoak jarraitzen dituzten profesionalentzat.

Horrez gain, euskal presoei aplikatzen zaizkien segurtasun neurri bereziek segipena eta tratamendua are gehiago zailtzen dituzte, kanpoko kontsultak atzeratuz edota galaraziz. Salatzen ditugun eskubideen urraketa guztiak oso larriak dira, baina eremu honetan muturreko egoetara eramaten gaituzte, oinaze handia sortuz. Balantze honetan 2016eko urtean aipagarriak izan ziren eta kezka handiena sortu zuten kasuak laburbiltzen ditugu.

Urte bukarean, espetxe arinduan ziren 3 presoen gain, 11 ziren larriki eri diren presoen zerrenda osatzen zutenak (ikus zerrenda kapitulu honen bukaeran), jakinez beste hainbat presok, egoera berean, anonimotasunean mantentzea nahiago dutela.

## **Lorentxa Guimon**

Bere osasun egoera dela-eta eta Bagoaz-en eskutik mobilizazio sendo baten ondotik baldintzapeko askatasuna onartu zioten LorentxaGuimon euskal preso politikoari otsailaren 25ean :Crohn gaixotasuna du 1991az geroztik, eta azken hilabeteen asko okertu zen bere egoera.

Bestelakoa ezin zitekeen izan erabaki honekin poztu ginen. Haatik, bere egoeragatik onartu zen askapen hau, hiru hilabetez atzeratu zuen prokuradoreak, bitartean Lorentxaren egoerak okerrera egin zuelarik: hiru aldiz izan zen ospitaleratua.

## **Gorka Fraile**

Badajozeko kartzelan (750 km) den Gorka Fraile larriki gaixo dagoen presoetako bat da. Apirilaren 29an, bertako ospitalera eramanezuen poliziak OBTA (Ordenadore Bidezko Tomografia Axiala) bat egin ziezaioten, 2015eko martxoan diagnostikatu zioten mingaineko minbiziaren jarraipena egiteko beharrezkoa. Eskuburdinak jarrita egin zuen bidai osoa presoak, baina makinan sartu aurretik kendu egin zizkioten; tomografia bat egiteko unean jokabide logikoena. Horren aurka, OBTA hori egiteko arduradunak Fraileri berrir eskuburdinak jarri ziezaioten exijitu zien poliziei. Ez Fraileren azalpenek, ez gelan polizia zaintza egoteak, ezta tomografoan metalezko objektu bat sartzeko irregulartasunak ez zuten lortu medikuak exijentzia horretan etsi zezan. Azkenean, eskuburdinak jarri zizkioten berriz Gorka Fraileri. Kontrasterako beharrezkoa den bidea jartzea asko zaildu zuen horrek, presoari mina eta urduritasuna sorraziz.

Urtebete inguru lehenago, interbentzio kirurgiko bat egin ziotenean, lesioaren erresekzioa burutuz, ospitale berean arazoak



sufritu zituela gogorarazi behar da. Arazoak ospitalean ingresatu bezain laster suertatu ziren, zaintza poliziaren aldetik. Ospitaleratu bezain laster eskuburdinez lotua izan zuten une oro, ebakuntza burutu arte. Gauez behin eta berriz trabatu zitzaion zaintza poliziaren aldetik bere atsedean eta loaldia: mehatxuak, ahotsak, oihuak, kolpeak paretan... Polizia ebakuntza-gela bertan sartu zen, ebakuntza burutu arte han egonda.

Elkarteak, OBTA arduradunaren etika profesional izpirik gabeko jarrera salatu zuen. Etxerategi ezagutzen zuen kontsulta edo azterketa egoki bat egiteko eskuburdinak kentzea eskatzen duten medikuen jarrera, baina lehen aldia zen, kontrako egoera ematen zela.

Ekainan, Audientzia Nazionalak bere bizitokitik hurbil den kartzela baterako lekualdaketa ukatu zion presoari. Kartzela Erakundeek zein Kartzela Zaintzako Auzitegi Zentralak jadanik ukatu zuten eskaera. Ekainan, presoaren abokatuek aurkeztutako apelazio-errekurtsoa atzera bota zuen Audientzia Nazionalak. Beste euskal preso politikoen aurreko eskaerak ukatzeko auto eredu berbera erabili zuen auzitegiak, erresoluzio indibidualizatua erakusten duen aldaketa nabarmenik gabe.

## **Aitzol Gogorza**

Ekainaren 13, 14 eta 15ean, Aitzol Gogorza, larriki eri den eta Basauriko espetxean preso dagoen euskal preso politikoa 3 egunez ingresatua izan zen Basurtoko ospitalean antsietate krisi batengatik. Oreretako presoak eboluzio kronikoa eta ezgaitasunezko Obsesio Konpulsio Desoreka du, eta Desoreka Depresiboa autolisi arriskuarekin (bere buruaz beste egiteko ideia, arrisku handia du zentzu honetan). Gaixotasun hau ideia zehatz baten buruzko obsesio patologikoa, irrazionala, adierazten du. Ezin du gainetik kendu obsesio hori, nahiz eta konturatu obsesioa dela. Obsesio hori zalantzan jartzen duena susmagarri bilakatzen da anitzetan. Askotan, oso gogor egiten zaie egun osoan ideia bat burutik ezin kentzea, eta edozein “irtenbide” nahiago dute horrela jarraitzea baino.

Bere egoera biziki larria da. Sufrimendu handia pairatzen dute mota honetako gaixoei. Gainera, bere inguruak ere oso gaizki pasa ohi du, ez dakielako nola egin aurre gisa honetako kasu bati. Espetxea gisako toki hertsibatean are larriagoa bilakatzen du arazoa. Krisialdiak bata bestearen ondotik suertatzen ari dira, bere buruaz beste egiteko saioekin tartekatua, eta aldiro ingresatu behar izaten dute Basurtuko Ospitalean.

Eboluzio luze honen ondorioz, krisialdien arteko tarteak gero eta gehiago murrizten dira eta suspertze maila gero eta apalagoa da. Auzitegi-Medikuntzako Euskal Erakundeko txostenaren arabera (2014ko apirilaren 11koa, Aitzolekin egon ondoren egindakoa), diagnostikoa honako hau da: Obsesio-kompulsio Desoreka. Depresio



Desoreka. Suizidioaren arrisku handia. Ondorioz, espetxetik kanpo egotea tratamenduarentzako lagungarri litzatekeela dio. Egoera oso larria izan arren, Aitzolen abokatuak egungo legediaren arabera egindako askatasun eskaerak bata bestearen jarraian ukatuak izan dira.

Abuztuaren 6tik 12ra, gose greba bat burutu zuen. Protesta neurri hori bere askapena exijitzeko egin zuen, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoek kasuan egungo legediaren baitan jasotzen baita askatasun eskubide hori, bere kasuan bezala.

Abenduaren 20an, Aitzol Gogorza Basurtuko ospitalean berriz ingresatua izan zen. Aurretik, oso gaizki sentitzen zela komunikatu zion presoak bere sendiari. Egun batzuk zeramatzan egoera horretan eta egun hartan okerrera egin zuen, horregatik, Aitzolek berak ospitaleratua izatea eskatu zuen. Bertan medikatua izan zen eta Basauriko espetxera eraman zuten berriz. Azken honekin, 24 dira espetxetik larritasunez ospitaleratua izan ziren aldiak.

## **Jose txo Arizkuren**

Ekainaren 24an, Jose txo Arizkuren, larriki eri den Iruñako euskal preso politikoa, Pontevedrako A Lama espetxetik Murtziako espetxera lekualdatua izan zen. Presoen trasladoetan izaten diren baldintza txarrak zein Murtzian dauden beste euskal presoek pairatu dituzten asistentzia desegokiak aurrekariak direla-eta, kezka handia sortu zen senide eta gertukoengan, bere osasun egoeran izan ditzakeen ondorioengatik.

Jose txo Arizkurenek Kardiopatia Iskemiko larria dauka eta stent bat ezarria. Lekualdaketa honen aurretik, Iruñeako presoak bi aldiz ingresatu zuten espetxeko erizaindegian oxigenoa behar zuelako. Galiziako espetxean Jose txo Arizkuren mediku asistentzia egokia jasotzen ari zen, baina Murtziako espetxean beste preso eri batzuek jasaten dituzten egoerek ez dute gaixotasunaren tratamendu egokia jasoko duenik iradokitzen. Gogorarazi nahi dugu bere garaian Murtzian preso zegoen eta minbizia diagnostikatuta zeukan beste euskal preso politikoa batek pairatutako tratu eta asistentzia ezegokia salatu zuela: azterketa mediko batean aurkitutako metastasia 6 hilabete beranduago jakinarazi zioten. Ospitaleko egonaldia eta tratamendua bereziki gogorrak izan ziren preso harentzat, aurreikusitako 18 kimioterapia saio bakoitzean eskuburdinekin lotuta egon behar izan baitzuen. Horrez gain, ebakuntza egin ziotenean bere senideek berarekin bisita egin ahal izateko zailtasun handiak pairatu zituzten.

Bestalde, bidaiari-leku oso txikitik egin behar izaten dute bidaia presoek furgoneta barruan, denbora luzez mugitzeko edo jarreraz aldatzeko ia espaziorik gabe, horrek suposatzen duen neke eta ezinegon fisikoarekin, egun hauetako beroarengatik areagotua.



Astebete iraun dezakeen bidaian espetxe ezberdinetan sartzen dituzte, eta ohikoa izaten da helmugako espetxera heldu eta mediku txostena aztertu arte medikazioa bertan behera geratzea.

Josetxo Arizkurenen bikotea ere A Lamako espetxean zegoen. Lekualdatze honen ondorioz, eskubidez dagozkien bisitak bertan behera geratuko dira eta euren senideek bisitak egin ahal izateko Euskal Herritik 800 kilometrotara dauden espetxe ezberdinetara bidaiatzera behartuak ikusiko dira.

## **Ibon Fernandez Iradi**

Ekainaren 29an, Frantziako Kasazio Auzitegiak atzera bota zuen Ibon Fernandez Iradi kartzelan gaixo mantentzeko epaia. 2015ean, Iradiren espetxealdia eta gaixotasun larria bateragarriak zirela ebatzi zuen Zigor Ezartze Auzitegiak. Fernandez Iradiren abokatuak hedabideetan salatu zuenez, erabakia onartezina zen: eztabaida ez baita presondegi barruan artatua izan daitekeen ala ez; presondegiko tratamendua kanpoan eskura lezakeen bera den ala ez baizik.

Ekaina bukaeran beraz, Frantziako Kasazio Auzitegiak atzera bota egin zuen auzitegi horren argudiaketa, eta Fernandez Iradiren askatasun eskaera berriz aztertzeko agindu zion. Horrez gain, kasua berriz aztertzeko epaitegiaren osaketa ezberdina izango da, hots, beste epaile batzuek aztertuko dute.

2011ko hasieran gaixotasunaren lehen sintomak pairatzen hasi zen Fernandez Iradi. 2012ko udazkenean oinaze sintomen agerraldi larri batzuen ondoren, Toulouseko Purpan Ospitalean hainbat froga neurologiko egin zioten eta Esklerosi anizkoitza diagnostikatu zioten (Nerbio-Sistema zentralaren endekapenezko gaitz larria, sendaezin, kroniko eta progresiboa). Lannemezaneko espetxean aurkitzen da.

Abenduaren 15ean, aldiz, Pariseko zigorrak ezartzeko epaitegiak, Ibon Fernandez Iradiren kaleratzea errefusatu zuen. Epaimahai frantsesaren arabera, Ibon Fernandez Iradik pairatzen duen esklerosi anikoitza bere espetxe egonaldiarekin guztiz bateragarria da.

Etxerat Elkarteak Frantses estatuak berriz ere argi eta garbi eta modu gordinean adierazi zuela oinarritzko giza eskubideei ematen dion balio eza, hartutako erabakia, Fernandez Iradiren osasun eskubidea ezabatzea suposatzen duelako gogor salatu zuen. Etxeratek ez dio inongo zilegitasunik ematen, esklerosi anikoitza, eta holako gaitzak eskatzen dituen arreta medikoa eta zaintza, espetxeko bizibaldintzekin bateragarria dela dioen txosten bateri. Esklerosi anikoitza pairatzen duten zenbatek babestuko lukete halako erabakia?



## Ibon Iparragirre

Urrian, Ibon Iparragirreraren egoerak okerrera egin zuela jakin izan genuen, osasun defentsetan beherakada bat jasanez. Hori adierazten zuten azkenekoz egin zituen analitikek, zeinetan benetako arriskua suposatzen zuten baloreak erregistratu ziren. Jende orok daki ze suposatzen duen horrek Hiesa C estadioan, larriena, duen pertsona batentzat. Espetxeak, gainera, kontu handia ezartzen du Ibon gainontzeko kideengatik isolatuta mantentzeko, bere oinazea areagotuz. Eta berea bezalako gaixotasun larri eta sendaezinen kasuan legeak ezartzen duen askatasuna ukatzen jarraitzen diote. Kartzelatzeak sekula bermatuko ez dion tratamendua, arreta eta mediku zaintza ukatzen diote. Osasun eskubiderako sarbidea ukatzen diote.

Abenduaren 7an, Ibon Iparragirreraren senideek Etxerati jakinarazi zioten presoak erasoak jaso zuela Alcalá Meco kartzelako funtzionarioengandik. Espetxeko zuzendari ordeak presoari erizaintzara joan behar zela esan eta gero gertatu zen. Ondoren, bertako funtzionario batek gela txiki batera eraman zuen Iparragirre eta eskua altxatu zuen bere aurrean jotzeko imintzioa eginez. Horrek funtzionarioaren eskua geldiaraztera eraman zuen presoak. “Eskuak geldirik” izateko ohartu zion funtzionarioak presoari eta jarraian hainbat aldiz kolpatu zuen Iparragirre, kasu batzuetan aurpegian ere.

Ibon Iparragirreraren egoera oso larria zela salatu zuen Etxeratek. Ez zen lehen aldia Alcalá Mecoko funtzionarioengandik abusuak eta erasoak jasotzen zituela. Gertatutakoaren larritasunari presoak larriki gaixorik dagoela gehitu behar zaio. HIESA du, C-3 estadioan, eta gainontzeko preso gaixo larriekin gertatzen den bezala, salbuespeneko espetxe politikek blokeatuta dituzte egungo legediak barne hartzen dituen askatasun aukerak.

## Ibai Aginaga

Urriaren 19an, hilabete batzuk aurrerago eskatutako mediku bisita bat izateko Sevillako ospitalera eraman behar zuten Aginaga. Espetxetik ateratzeko unean, ordeak, trasladoa burutu behar zuen Guardia Zibilak biluzte integrala exijitu zion Aginagari, eta hau ukatu egin zen. Egoerak tentsio handiko uneak sorrarazi zizkion presoari; Guardia Zibil bat presoak erasotzen saiatu zen ere. Geroago, presoak bere borondatez kontsultari uko egiten zion dokumentu bat sinatzeko aurkeztu zioten Aginagari, eta hau sinatzera ukatu zen ere. Izan ere, bera, arauditik kanpo zegoen katxeo batera ukatu zen, baina ez kontsulta medikoa egiteari. Haatik, Guardia Zibilak ez zuen ospitalera eraman.

Ibai Aginagak gaitz kardiakoa pairatzen du, eta horregatik egin zuen eskaera aurreko astean burutu behar zuen kontsulta egiteko.



Sevillan diren euskal preso politikoek txapeo bat burutu zuten Aginagak pairatu zuen egoera salatzeko. Azpimarratu beharra dago, horrelako trasladoetan Guardia Zibilak ez dituela gisa horretako katxeoak exijitzen, eta gainera, biluzte integralak egin behar diren bermeak ez direla betetzen horrelako kasuetan. Halere, trasladoa ukatu zioten.

Horrez gain, Ibai Aginagak bezperan amaitu zuen lau egun lehenago larriki gaixo diren presoek alde hasitako gose greba: Aginagak konortea galdu zuen bere ziegan. Gose greba amaituta, Aginaga txapeoa burutzen ari zen (bere ziegan 24 orduz egon).

### **Joseba Borde**

Azaroaren 16an, Jaiki Hadi elkarteak Joseba Borde Gaztelumendi preso politiko ugaotarrari koloneko minbizia diagnostikatu ondotik, larrikin eri diren presoek zerrendan sartu zela jakinarazi zuen. Jaiki Hadik adierazi zuenez, «urte honetan zerrenda laburtu beharrean luzatu behar izateak zera adierazten digu: presoek osasun egoerak okerrera egiten jarraitzen duela eta ez dela inolako neurririk hartzen errealitate honen aurrean». Hortaz, azpimarratu zuten «gaitz larriak sendatzeko edo kontrolatzeko guztiz desegokia den espetxealdia ez dela kasu bakar batean ere eten urte osoan».

### **Kasu berri horrekin, 11ko zerrenda batekin bukatu genuen 2016eko urtea.**

1. **Josetxo ARIZKUREN RUIZ** (Iruñea, 1958) : Kardiopatia iskemiko larria. Kateterismoa: Stent hodi batean.

2. **Garikoitz ARRUARTE SANTA CRUZ** (Hernani, 1980): Espondilitis Ankilosante, Artralgiak, Aldebiko Errotula Kondropatia, Aldebiko sakroilitisa.

3. **Jagoba CODO CALLEJO** (Donostia, 1964): Espondilitis Ankilosante B 27negatiboa, pluripatologia koadroa.

4. **Iñaki ETXEBERRIA MARTIN** (Iruñea, 1964): Miopia Magnoa koriorretinitis miopikoarekin, Eskuineko Begiko Erretina Hemorragia, Ikusmenaren zorrotasunaren galera, bi aldeko Glaukoma.

5. **Ibon FERNANDEZ IRADI** (Lasarte, 1971): Esklerosi Anizkoitza.

6. **Gorka FRAILE ITURRALDE** (Durango, 1970): Mingainaren kartzinoma epidermoidea.

7. **Aitzol GOGORZA OTAEGI** (Orereta, 1975): eboluzio kronikoa eta ezgaitasunezkoa duen Obsesio Konpulsio Desoreka, Desoreka Depresiboa autolisi arriskuarekin.



8. **Ibon IPARRAGIRRE BURGOA** (Ondarroa, 1973): VIH C-3 estadioko infekzioa, lesio neurologiko garrantzitsuarekin, Enzefalopatia subakutua, laguntza psikologikoa behar izaten du.

9. **Jose Ramon LOPEZ DE ABETXUKO LIKINIANO** (Gasteiz, 1949): Bradikardia sintomatikoa, Kateterismoa, 2014ko irailaren 19an taupada markagailu bat ezarri zioten, Prostatako adenoma. Zerbikoartrosia: Zerbikalgia. Bialdeko koxartrosia (Ezker aldakako artrosia 2002tik). Koxalgia.

10. **Jesus M<sup>a</sup> MARTIN HERNANDO** (Basauri, 1962): Eskizofrenia paranoidea eta Antsietate Nahasmendu orokortua, Hasiera faseko Nahasmendu Kognitiboa, 2010/09/23an, bakartze erregimena eta egoera oso bortitzak urte luzez pairatu ondoren, zainak mozten saiatu zen. Hori dela eta, Laguntza protokoloa (bere buruaz beste egiteko arriskua dutenei ezartzen zaiena, eguneko 24 orduak lagun baten zaintzapean egon behar direlarik) ezarria du. aranoia larriak izanditu, ahotsak entzuten aldiro eta zentzurik gabeko solasaldiak egiten ditu maiz.

11. **Joseba BORDE GAZTELUMENDI** (Ugao, 1959): 5 zentimetroko adenokartzinoma, IIa estadiokoa.



### 3. DISPERTSIOAREN BESTE ONDORIOAK

#### 3.1 Istripuak

**2014ko urtean, 10 auto istripu izan ziren, 2015ean 5, haietatik 4 apirilan. 2016eko urtean, 8 istripu jasan ditugu, haietako 3 ekainan, beste 2 azaroko asteburu berean.**

2016an, dispartzio politikak eragindako lehen istripua jaso zen urtarrilaren 24ko goizaldera. Olga Comes euskal preso politikoaren lagun batek istripua izan zuen Mansillako (Leon) kartzelara bisitatzera zihoala, 05:20ak aldera “ziztu bizian” zihoan beste kotxe batek atzetik jo zuenean. Istripua Nafarroa eta Errioxa arteko mugan gertatu zen, eta biktimak azaldu zuenez, “sekulako behelainoa” zegoen ordu horietan, beste kotxearen abiadura eta egin zituen maniobrenatik Comesen lagunaren kotxea errepidetik ateratzea eragin zutenak. Senidearen kotxea ezker atzekaldean jo zuen beste kotxeak. Aurrekaldea ezkerrera begira geratu zen eta atzeko partea eskuinera: inertziarenatik alde bateko mediana zein bestea kolpatu zituen. Polizia eta suhiltzaileei deitu ondoren, Lizarrako ospitalera izan zen ebakuatua senidea. Erradiografia eta hainbat frogak egin ondoren kontusio eta zauri ezberdinak zituela ikusi zen. Kotxea Logroñora eraman zuen garabiak, baina 09:00etako bisita egiteko aukera galdu zuen, ordu erdi lehenago izatea derrigorrezkoa baita.

**Otsailan 20eko** asteburuan, Iñaki Bilbao preso politikoaren bi senidek Castello II-tik bueltan zetozela izan zuten urteko 2garren istripua, gaua zela, Arkauten (Araba). Errepidean basurde bat agertu zitzaion eta ezin izan zuten kolpea ekidin. Kotxeko bidaiariak ez zuten larritasunezko kalterik jaso, errepideak abiadura txiki batera derrigortzen zuelako baina baita ere ordu horietan egiten zuen eguraldiarenatik.

**Maiatzaren 14an**, Arkaitz Goikoetxearen bi lagunak urteko hirugarren istripua izan zuten Burgos inguruan, Valdemorotik bueltan zetozela, Madriletik, Goikoetxea bisitatzetik. Momentu zehatz batean, gidariak kotxearen kontrola galdu zuen, zeinak behin baino gehiagotan errepideko erdibitzailea jo zuen, lehendabizi aurreko gurpil bat leherraraziz, eta ondoren atzekoa. Bi bidaiariak taxian jarraitu behar izan



zuten ibilbidea, eta hasiera batean zauri larriak ez zituztela zirudien arren, hurrengo egunean bietako batek arreta medikoa behar izan zuen, zuen mina zela-eta.

**Ekainaren 4an**, Briedan 470 kilometrotara preso den Oihane Agirreren bi senidek, auto istripua izan zuten bisitatik bueltan. 11 ordu eta ia 1000 kilometroren ondoren, Kanpetzu inguruan zirela, errepidean bapatean azaldu zen basurde batek gidaria abiadura murriztera eramane zuen, eta atzean zihoan furgonetak kolpatu egin zuen senideen kotxea.

**Ekainaren 12an**, Puerto de Santa Marian, 1000 kilometro baino gehiagora preso den Aitor Agirrebarrenaren lau senidek istripua izan zuten Salamanca inguruan bisita egitetik zetozela. Haien aurretik zihoan kotxeak bortizki balaztatu zuen eta senideek ezin izan zuten kolpea ekidin.

**Ekainaren 26an**, Topasen (Salamanka, 440 Km) preso den Gorka Lupiañez bi lagunek –tartean adin txikiko bat – auto istripua izan zuten kartzelara bidean. Ondorioz, kalte material larriak izan zituzten eta bisitara berandu iritsi ziren. Hori dela-eta Lupiañez 15 minutu besterik ezin izan zuten ikusi.

**Azaroaren 19an**, urteko 7 eta 8. istripuak gertatu ziren gaueko 21:30etan, Burgos-Gasteiz errepideko 34. kilometro inguruan. Basurde talde handi bat Huelvatik bisita egitetik zetorren furgonetaren bidean gurutzatu zen. Bertan, 6 senide eta bi gidari boluntariok bidaiatzen zuten. Animalia talde berdinarekin talka egin zuen furgonetaren atzetik zetorren autoak, eta kasualitatez, kasu horretan Mansilla, Leonetik, bisita egitetik bueltatzen zen senide bat zetorren ere.

Furgonetaren kasuan, 1750 kilometro eta 27 orduko ibilbidea eginda zeramatzan; kotxearen kasuan, 1000 kilometro inguru. Talkaren ondorioz, bederatzi pertsona hauek larrialdietan artatuak izan ziren; horietatik seik, lepokoa daramate, eta medikuaren aginduz atsedena behar dute. Horrez gain, Guardia Zibilaren beldurtzeko jarrerari aurre egin behar izan zioten, zeinak azkenean, pertsona bati 100 euroko isuna jartzeko modua topatu zuen. Bi ibilgailuek ezin izan zuten bidaiarekin jarraitu; kotxeak erabateko hondamena jasan zuen.

### 3.2 Bisita eskubidearen urraketak

#### **Bere aitaikusteko eskatu zuen baimena ukatu zioten Ana Belen Egues euskal preso politikoari**

Otsailaren 17an, bere aitaikusteko eskatu zuen baimena ukatu zioten Ana Belen Egues euskal preso politikoari. Cordobandago preso Egues (810 km) eta duela hamar urteikusten ez duen bere aita bisitatzeko baimenaukatu zion Espetxe Zuzendaritzatik. Baimen berezihori ez da kartzelatik ateratzeko, baizik eta Euskal Herriko espetxeetara behin-behineko lekualdaketa bat izateko baimena (familia egoalarriak ematen direnean eskatzen dituzte presoek). Kasu honetan, Ana Belen Eguesek baimenaberezia eskatu zuen bere amaren bat-bateko heriotzaren ondorioz, 1620 kilometroko bidaia burutu ezin zuen bere aita adindua ikusteko.

2015eko abenduaren hasieran Unai Bilbao euskal preso politikoaren kasuan bezala, urrunketak familia bizitza eskubidea urratzen ez duela mantentzeko Audientzia Nazionalak esandakoa zalantzan jartzen da horrelako kasuekin. Horra Audientzia Nazionalaren hitzak: *Espetxera desplazatzeko balizko eragozpen baten (adin kontuagatik, osasun egoeragatik edo arazo ekonomikoengatik) aurrean familiartekoei duten egoera espetxeratuak eskatzen ditzakeen ez-ohiko baimenen bidez konpontzen da, haiek espetxe tratamendu hori bazter badezakete ere; kasu horretan, eskubide hori gauzatzeko eragozpenak eta oztopoak espetxeratuaren beraren borondatearen ondorio izango lirateke.*

#### **Rufino Arriaga euskal preso politikoak ezin izan zion bere aitari azken agurra eman**

Martxoaren 12an zendu zen presoaren aita, eta bere amak ezgaitasun osoa du aspalditik; 2015eko irailean eskatu zuen Rufino Arriaga euskal preso politikoak (Sevilla, 910 km) bere sendia ikusteko lekualdatze baimen berezia, haren



senideek hura ikusteko ezintasuna dela-eta: urteak zeramatzaten kartzelara bidaiatu ezinik adinekoak izanik.

Duela 3 urte ama ikusteko baimena eman bazioten ere – ezgaitasun osoa du aspalditik –, kartzela zuzendaritza irailean eskatutako bigarren baimen hau ukatzen egon zen ordutik, eta aita zendu arte.

### **Igor Suberbiola euskal preso politikoaren senideek bisita galdu zuten presoaren bapateko lekualdaketa baten ondorioz**

Igor Suberbiola euskal preso politikoa Lyongo (900 km) presondegitik Arlesekoa (750 km) lekualdatu zuten martxoaren 21ean. Presoak berak salatu zuenez, oso denbora gutxi eman zioten prestatzeko, ondorioz, oso gauza gutxi eraman ahal izan zituen berarekin eta gainontzekoak beste kartzelara bidaltzeko prestatzeko ez zuen astirik izan. Bestalde, bere senideek asteburu honetako bisitak eta hauek gauzatzeko hegazkin billeteak zein hoteleko erreserbak galdu zituzten.

### **Senide eta lagunak bisita bidaietan oztopo eta presioak**

Otsailaren bukaeran, Algeziraren den Karlos Kristobal euskal preso politikoaren lagunak bisita egiteko oztopatuak izan ziren, aurretik alokatu zuten kotxea entregatzera ukatu ziren ibilgailuen alokairuko enpresa horretako langileak. Presoaren lagunak Malagaraino joan ziren hegazkinez, hortik Algezirasera alokatutako kotxe batean bidaiatzeko. Record.go agentziara bertaratu zirenean, ordea, langileak kotxea uztera ukatu ziren. Jarrera horren zergatia, poliziak alokairu hori egindako pertsonaren inguruan egin zituen hainbat galdera eta ikerketak dira, langileek adierazi zutenez.

Malaga-Algezirak bidaiak horren margen txikiarekin inprobisatu behar izateak, 1100 kilometroko bidai bat egin ostean (itzultzeko ere beste hainbeste izanik), bisitaren galera suposa zezakeen, baina horrez gain, jazarpena bezala izendatu daitekeen egoera batek sorrarazitako urduritasun eta tentsio une arrazoizkoei egin behar izan zieten aurre. Uste dena baino egoera ohikoagoa da: kartzelarako bidaietan euskal preso politikoaren senide eta lagunak jazarpen, hertsapen, mehatxu eta segizioak jasan behar izaten dituzte.

**Fermin Vila bere senideen aurrean lekualdatu zuten eta familiak bisita galdu zuen Bisita onartu zieten baina espetxean aurkeztu zirenean presoak beste kartzela batera lekualdatu zuten haiek bertan zirela.**

Apirilaren 8an, Fermin Vila euskal preso politikoari espetxez aldatuko zutela jakinarazi zioten. Transitoan aurkitzen zen Valdemoroko (490 km) espetxean, Villenatik (Alacant). Egun berean, ordura arte lekualdaketa ez zekiten senideek bisita eske hots egin zuten eta horretaz informatu zituen kartzelak. Halere, Valdemoroko espetxeak bisita onartu zien; larunbatean 16:00etan, baina ordubete lehenago agertzeko ohartarazi zituzten, ohi den bezala. Bertara iritsi zirenean ordubete itxaroteko esan zieten, lauak arte, baina kartzelak tarte hori presoak lekualdatzeko baliatu zuen. Senideak espetxean berriz azaldu zirenean Fermin beste Alcalá Mecoko presondegira bidean zela erantzun zieten funtzionarioek. Sendiak “adar jotzea” salatu zuen. Ia 1.000 kilometro egin dituzte joan-etorrian.

Horrez gain, hil honetan zehar epaitua izan zen Vila, eta bere hizkuntz eskubidea ere urratua izan zen; bere alegatua egiteko unean euskaraz egitea debekatu zion bertako Concepción Espejel epaileak, eta bere hitz hartzea moztu zuen, «Argi dago ez dagokion adierazpen bat egiten ari zarela, beraz egon isilik mesedez eta ez oztopatu», esan zion.

**Joseba Iturbide eta Izaskun Lesaka euskal preso politikoak gose greban eta mitarrean hurrenez**

Presondegi ezberdinetan kartzelatuak izanik, bikote bezala izateko eskubidea duten bisitak galaraziak ziren. Ekintza hauekin, euren elkarbizitza eskubidea aldarrikatzen zuten. Bi presoen senideek Etxerati jakinarazi ziotenez, Fleury, bere bizitokitik 950 kilometrotara preso zen Joseba Iturbide Otxotekok gose greba hasi zuen ekainak 28an. Poitiersen, 550 kilometrotara zen bere bikotekidea, Izaskun Lesaka Arguelles, bere borondatez sartu zen mitard-ean (zigor ziegan) ekainaren 15ean. Bi presondegi ezberdinetan preso egonda, eskubidez dagozkien bisitak galarazten zaizkien, eta euren komunikazioa gutunen bidalketara murrizten zen.

Abiatu zituzten protesta neurrien bitartez, senar-emazteek kartzela berean egotea aldarrikatzen zuten. Lesakak zein



Iturbidek, behin baino gehiagotan azaldu zieten euren egoera Frantziako kartzela agintariei. Irtenbiderik gabe bi urte igaro ostean, bi presoek beste pauso bat ematea erabaki zuten euren eskubideak aldarrikatzeko. Joseba Iturbidek gose greba hasi zuen ekainaren 28an, eta uztailaren 8an amaitu. Bere aldetik, Izaskun Lesaka bere borondatez sartu zen Mitardera (zigor ziega), eta horren ondotik bere kidearen gose grebara batu zen uztailaren 4ean, eta 14ean amaitu zuen.

### **Zaballako zuzendaritzak prozedura irregularra erabili zuen Agurtzane Delgadoren vis a visak eragozteko**

Agurtzane Delgado, Granadan, bere bizilekutik 780 kilometrotara zegoen euskal preso politikoa Zaballako kartzelara izan zen lekualdatua maiatzaren 23an. Lekualdaketa eskaera presoak berak egin zuen duela hilabete batzuk bere ama ikusteko, adinekoa izanik ezinezkoa zaiolako Granadara joan eta bueltatzeko beharrezkoak diren 1500 kilometroak egitea. Behin Zaballan, Delgadok bere ama bisitatu zuen zainduta, ordubetez, Eibarren. Presoak maiatzeko vis a vis komunikazioa eta ondoren ekainekoa eskatu zituen Arabako kartzelan. Kartzela araudiak jasotzen duenez, gutxienez hilean behin gisa honetako bisita bat egiteko eskubidea dauka. Haatik, kartzelako zuzendaritzak ez zituen zegozkien hilabeteetarako baimendu, eta uztailaren 2 eta 5erako onartu zizkion.

Ekainaren 29an, lekualdatu zuten berriz Agurtzane Delgado Granadara, eta horrek bistan uzten zuen bi hilabete horietako visak atzeratzeak hauek ez gauzatzea zuela helburu. Etxeratek Zaballako kartzela zuzendaritzaren jarrera salatu zuen. Behingoagatik Agurtzane Delgadoren senideek 1500 km baino gehiagoko bidaia ez egiteko aukera zutenean prozedura irregular bat erabili zuen presondegi horrek.

### **Unai Bilbaoren senideek presoak bere aitaren heriotza zela-eta, haren gurasoen etxera egindako bisitan zehar jasotako tratua salatu zuten**

Alboloteko (Granada, 860 Km) kartzelan den Unai Bilbaoren senideek Etxerati jakinarazi zioten presoak Ertzaintzaren aldetik jasan zuen tratua. Uztail bukaeran Portugaleteko bere jaioterrira trasladatua izan zen bere aitaren heriotzaren ondoren. Bisita osoan zehar eskuburdinak estuki jarrita izan zituen, nahiz eta ohi den bezala zaintza agenteen



presentzian egiten dira beti, eta tratu oldarkorra jasan zuen, bai hitzez zein fisikoki ere. Agenteak preso bultzatzera iritsi ziren ere familiaren etxeko portaleko eskilarak jeisten ari zela. Sendiak gertaera salatzeke asmoa iragarri zuen, eta Bilbaok salaketa jarri zuen Kartzela Erakundeen aurrean.

Ez zen lehen aldia preso eta sendiaren bizitza eskubidea urratzen zela. Granadako kartzelak bi hilabetez atzeratu zuen Bilbaok bere adineko ama ikusteko eskatu zuen ez-ohiko baimena; andreak ezinezkoa baitzuen semea ikusteko beharrezkoak diren 1700 kilometro baino gehiagoko distantzia bidaiatzea. 2015eko abenduan zendu zen Bilbaoren ama, preso ikusteko aukerarik gabe.

### **Bost egun beranduago zendu zen bere ama bisitatzeko lekualdaketa ukatu zioten Josune Arriagari**

Josune Arriaga, Salamankan dagoen euskal preso politikoa, irailaren 9an Iruñera traslatatua izan zen irailaren 7an zendutako bere amaren hiletara joateko; gaixotasun luze baten ondorioz hil zen. Bost egun lehenago soilik, Topaseko espetxeak bere ama bisitatzeko baimena ukatu zion.

Eskaera egindakoan entregatu ziren mediku txostenek amaren egoeraren larritasunaz ohartzen zuten arren, eskaera ukatua izan zen. “Zuk diozu hiltzen ari dela”, izan zen espetxeak egin zion aipua trasladoa ukatzen zion dokumentua entregatu ziotenean. Momentu horretan, Josune Arriagaren amaren egoera kritikoa zen, eta bere heriotza une batetik bestera gerta zitekeela adierazi zuten medikuek. Josune Arriaga 2010eko maiatzean izan zen atxilotua, eta handik hilabete gutxira Topaseko (Salamanka) espetxera aldatua, bere bizitokitik 440 kilometrora.

Denbora guzti honetan zehar, euskal preso politikoaren ama asteko bisitak eta hileko bisak egin gabe izan zen, bere gaixotasun larriak egin beharreko 900 kilometroak egitea galarazten zizkiolako. 2014ean, Iruñea bere jaioterrira traslatatua izan zen Josune Arriaga, ordubeteko bisita baterako, poliziaren zaintzapean. Hileta baino egun batzuk geroago, arratsalde hartarako baimendua zuten bisak egin izan gabe eta bere sendia ikusi gabe, Topaseko kartzelara traslatatua izan zen Josune Arriaga. Bere senideek Etxerati jakinarazi ziotenez, ezin izan zuten bere ama nola hil zen inguruan hitz egin berarekin.



Preso politikoaren ilobentzat, 900 kilometroko desplazamendua egin gabe bere izeba ikusteko aukera bakarra zen ere. Etxeraten irudiko, egungo espetxe politikaren mendeku xedea horrelako egoeretan bereziki geratu izan zen agerian. Oraindik bizirik zegoenean bere ama ikusteko debekua, errausketan egoteko baimena ukatzea eta familiarekin egon baino ordu batzuk lehenago lekualdatzea, oinazea areagotzeko borondate garbia bezala baino ezin da ulertu.

### **Fleuryko resondegiko funtzionarioen akats batek, Oier Gomezen senide batek Euskal Herrirako bueltako bidaia galtzea eta bisitari gastu gehiago gehitzea eragin zuen**

Oier Gomez euskal preso politikoa Osnytik Fleuriko espetxera lekualdatua izan zen irailaren 7an, Paris inguruan epaiketa batera joateko. Lekualdaketa jakinean izanik, bere senideek legezkoak diren bisitak eskatzeko tramiteak egin zituzten, irailaren 14ko goizeko zortzietan konfirmatuak izan zirenak.

Oier Gomezen aita Fleuryko kartzelara iritsi zenean bisita egiteko, bertako funtzionarioek bisita paperetan erregistratua ez zegoela esan zioten. Egin zituen kudeaketak alferrikakoak izan ziren, eta presoaren aita bisita egin gabe bueltatu behar izan zuen. Ordu batzuk geroago, Gomezen senideek dei bat jaso zuten kartzelatik, gertatutakoa akats bat izan zela esanez, eta bisita baimenduz. Ordurako aita tren geltokian zegoen. Taxi bat hartu behar izan zuen kartzelara bueltatu eta ordu eta erdiko bisita egiteko. Oier Gomezen aita bisita horren gastuen kopurua helarazi zion Etxerati. Ohiko gastuei taxiaren eta tren tiket berri baten kostua gehitu behar izan zizkion, goizeko bueltarako bidaia galdu ostean.

### **Iker Olabarrietaren arreba ezin izan zen bisitara sartu Huelvako espetxean**

Irailaren 17an, Iker Olabarrieta presoaren arreba, honen bere bi seme-alaba eta lagun bat, Huelvako espetxera joan ziren asteko bisita egitera. Ondoren, vis a vis familiarra zuten ere. Euskal presoaren arrebak ezin izan zuen bisitarik egin. Funtzionarioek bisitarik ez zegoela erregistraturik esan zuten, dei batean lau pertsonentzako eskatu zela. Bisita eskaerak telefonoz egiten direnean gertatzen den bezala, ez dago sarritan errepikatzen diren egoera hauek konpontzea



ahalbidetu dezakeen inolako frogagiririk. Iker Olabarrietaren arreba ezin izan zen bisitara sartu.

Bestalde, presoaren bi ilobak duela gutxi Huelvara bidaiatutakoak ziren. Hauen senideek bidai hauen artean denbora bat ezartzen saiatzen dira, horren nekezak ez izateko eta 2000 kilometroko bidai batek sortzen duen nekea saihesteko. Alabaina, Olabarrietak vis a vis-ean argazkiak ateratzeko baimena zuela jakinda, berarekin argazki bat ateratzeko ilusioarekin bidaiatu zuten. Baina haiek ere ez zuten kartzelara sartzea lortu; beharrezkoa zen baimena izan arren, ez zieten utzi. Kartzeletako funtzionarioen jarrerak, ohikoak diren arbitrariotasunengatik edota horren arraroak ere izaten ez diren akatsengatik, tentsioa gehitzen diote senideen bidaiei eta bisita espero duenari.

Aurretiko beharrezko kudeaketa eta gestioak egin ondoren eta baimenak ziurtatu arren, ordu eta gastu asko suposatzen duten ehundaka kilometroko bidai hauek, ziurgabetasunarekin egiten dira, azkenean bisitatu nahi duten senidea ikusteko aukera izango duten zalantzarekin

### **3.3 Presoen aurkako urraketa larriak**

#### **Arantza Zuleta euskal preso politiko eta euskal preso politikoen abokatua: MUTURREKO ISOLAMENDUA**

Arantza Zulueta, euskal preso politikoen abokatua, kolektibo horrekiko elkartasun eta asistentziaren aurkako operatiboaren markoan izan zen atxilotua, 2014ko urtarrilean. 2014eko apirilean, Puerto IIIko espetxera lekualdatu zuten, Puerto de Santa Marian. Ordutik, erabat isolaturik dago. Arantza Zulueta egoera prebentiboan dago, 2016eko abenduan, 30 hilabete igaro ditu egoera honetan. Puerto III-n dagoen euskal preso politiko bakarra da, baita espetxe horretan isolamendu egoeran dagoen preso bakarra.

Modulo batean isolatua dago, eta horretara soilik aldizka eramaten dituzte egun batzuetako zigor edo prebentziozko isolamendua igaro behar dituzten emakumezko preso sozialak. Betiere tirabira handikoak diren funtzionarioekin dituen elkarteak salbuetsita, eta asteko 40 minutuko bisitak izan ezik, euskal presoak egunak, asteak edota hilabeteak eman ditzake beste pertsonarik ikusi gabe. Patioko lau ordu ditu eguneko,



baina horietan ere isolatuta jarraitzen du, 15x3 metroko espazio batean, goitik sare metaliko baten bidez itxia den toki batean. Polikiroldegirako, eskulan edota gainontzeko instalazioetarako sarbidea debekatua du, beraz ezin du ez jarduerarik, ezta kurtzorik egin, eta egin dezakeen kirol bakarra, patioko espazio mugatuak uzten diona da, eta beste ziega batean dagoen bizikleta estatikoa.

Arantza Zuluetak, gainera, hilabeteak daramatza begietako minarekin, hasiera batean alergia bati lotua izan zena. Baina, edo diagnostikoa okerra da, edo medikazioak efektu egiteari utzi dio, begietako arazoa okertzen ari baitzaio. Euskal presoak ez du baimenik erizaindegira edo mediku kontsultara joateko ezta ere. Korridorean artatzen du medikuak, funtzionario batzuen aurrean. Ziegako atean dagoen leihatilatik artatzera ere iritsi da medikua. Katxeoak etengabeak dira eta oso oldarkorrak. Nahiz eta isolamendu gogorrean egon, ohikoa izaten da presoari biluzte integrala exijitzea eta bere ondasunak lurretik botatzea.

Irailan, ziega erregistratua izan zen bera bisita batean zegoen bitartean. Aktiboan dagoen abokatu bezala, bere defentsaren gidalerroak jasotzen zituzten idazkiak zituen, konfiskatu zizkiotenak. Horren bidez sekretu profesionala, konfidentzialtasuna, eta defentsarako eskubidea urratu zioten. Bere abokatuek azaltzen duten bezala, Arantza Zuluetak pairatzen ari duen erregimenaren aplikazioa honela justifikatzen du espetxeak: “Oraindik disolbatua ez den erakunde terrorista baten jarduerarekin duen loturagatik, eta zantzu guztien arabera, espetxean ere horri binkulatuta jarraitzen duelako”.

Euskal preso politikoa oraindik ez da epaitua izan, horrek, argi erakusten du kartzela erakundeei errugabetasuna bezalako zein beste eskubideei dioten errespetua. Gogorarazi beharra dago halaber, legedi europarrak zein espainiarrak, denboran luzatu ezin den ez-ohiko neurritzat hartzen dutela isolamendua. Zehazki, isolamenduak hainbat zigorri erantzuten dionean ere, araudiak 24-48 ordu bitarteko ohiko erregimena ezartzen du isolamendu batetik bestera, eta ezin du inoiz ere 14 eguneko epea igaro.

### 3.4 Senideekiko jazarpena

#### **Mikel Karreraren bikotea hiru hilabeteko kartzela zigorrera kondenatua bisita bateko gertakari batengatik**

Meluneko epaitegiak 3 hilabeteko kartzela zigorrera kondenatu du Mikel Karrera euskal preso politikoaren bikotea, zigorraren exekuzioaren etenarekin. Orduan 14 hilabete zituen bere alabarekin atxilotu zuten bisitara sartzera sortutako gertakari batengatik. Lehendabiziko bista 2015ko azarorako deitua zegoen, baina Meluneko epaileek ekainera arte atzeratu zuten, eta 2016eko ekainaren 1ean epaimahaiak errudutzat jo zuen, atxilotu bati objektu debekatuak pasatzeko delituaz, kasu honetan mugikor bat.

Sententziak 3 hilabeteko kartzela zigorrera kondenatzen du, eta halaber, zigorraren exekuzioaren etenaldira bost urtez. Hots, datorren bost urte horietan zehar antzeko egoera batean atxilotua balitz hiru hilabeteko zigor hori kartzelan bete beharko luke, gehi beste kondena berri bat. Reau Sud Francilien (estatu frantsesa, 930 Km) espetxean aurkitzen den preso politikoaren bikotea joan den urteko martxoan atxilotu zuten bere haurtxoarekin batera mugikorra umearen motxilan ahaztu zuelako bisitara sartzera zihoala. Behin baino gehiagotan nahaste bat izan zela errepikatu arren, 12 orduz atxilotua eta inkomunikatua izan zen, eta horietatik 8 bere alabatxoa gabe igaro zituen, zerbitzu sozialek eraman baitzuten nahiz eta haurra edoskitze garaian zegoela errepikatu zien.

Egoera hau emakumeari presioa egiteko erabili zuen polizia frantsesak, zeinak ordu luzez ezin izan zuen inorekin kontaktuan jarri izan, ezta bere abokatuarekin ere. Azken honi ziria sartu zioten komisaldegira deitu zuenean, bere defendatua bertan ez zela esan baitzioten. Atxilotuaren senideei ere gezurra esan zieten, haurra bere amarekin zela esan baitzieten, atxilotuak umea non eta nola zen ez zekien bitartean. Atxilotetan zehar poliziak aitortu egin zion gertatutakoa “Mikel Karreraren bikotea” izategatik gertatu zitzaiola. Honek azalduko luke ez atxilotetan zehar ezta epaiketean ere, mugikorra ahaztea nahaste bat bezala ez hartu izana, edozein bisitariren objektuak xeheki eta sistematikoki erregistratuak direnean.



## **Kordobara zihoazten senide eta gidariak pistolaz geldiaraziak eta autobia erdian jaistera derrigortuak Guardia Zibilarengatik**

Irailaren 10eko goizeko lauretan, Guardia Zibilaren kamuflatutako bi kotxek, armak leihatilatik aterata, Kordobara bisitak egitera zihoan euskal preso politikoen senideen furgoneta geldiaraztera derrigortu zuen autopista erdian. Furgonetan zeuden sei pertsonak ikusi zuten nola armak eskuan zituzten lau agente korrika hurbiltzen zitzaizkien. Antza oso urduri zeuden agenteak. Ibilgailuko ateak ireki, gidariari pistola buruan jarri eta kanpora atera eta lurrean etzatera derrigortu zuten. Gauza bera egin zuten bere kidearekin, eskuburdinak jarrita eskuak bizkar atzean jarri zizkioten, eta agente bat bere gainean jarri zen, asfaltoaren kontra mantenduz.

Operatibo antiterrorista bat zela oihukatuz, Mirentxin Elkartasun Kolektiboko bi gidariak lurrean geldiarazirik mantendu zituzten, eta pistolekin ere apuntatuz, errepidera ateratzera derrigortu zituzten bidaiatzen zuten lau senideak. Une oso gogorak izan ziren: oldarkotasunak eta agenteen urduritasun eta asaldurak, edozein momentutan euren bizitzarekin bukatzera eraman zitzaketela pentsatzera eraman zituen senide eta gidariak. Jarraian, lehen pertsonan gertaera hau sufritu zutenek kontatuko diguten bezala.

Geroago, Guardia Zibilek akats bat izan zela esan eta erretiratu egin ziren. Halere, furgoneta ia ez zuten erregistratu, ezta bidaiariak identifikatu ere. Aurretik, Kordobako espetxerako bi ordutik gorako bidaia geratzen zen, bi ordu bolantearen aurrean urduritasunak jota, ezarria den arrisku bat handituz. Horrez gain, bueltako 10 orduko bidaia geratzen zen, nekea, arriskua eta tentsioa gehituz.

### **3.5 Kriminalizazioa**

#### **Espainiako AN-ak presoek elkartasun alorreko 47 pertsona auzipetu ditu Auzitegi Nazionalak**

2016eko apirilaren 22an, Espainiako Auzitegi Nazionalak presoek elkartasun alorreko 47 pertsona auziperatu ditu Eloy Velasco epailearen aginduz. Azken urteetan egindako polizi operaziotan atxilotu zituzten pertsonak dira, Herrera, Jaiki Hadi eta Etxerat elkarrekin (bi pertsona). Presoek abokatuak ere zerrendan sartu dituzte. Akusazioen artean "ETAren



espetxe frontekoak” izatea leporatzen die. Maiatzaren 9 eta 10ean deitu dituzte deklaratzera.

### **Jone Artolaren betoa eta elkartearen aurkako kriminalizazio saiakera salatu ditu Etxeratek**

Bilboko Aste Nagusiko Txupinera izendatu zuten Jone Artola 2013an, baina Espainiar Gobernuako delegatu Karlos Urkijok salaketa jarri zuen horregatik. 2016eko maiatzan, Bilboko Administrazio Auzitegi batek debekua berretsi zuen. Beste gauzen artean, Joneren Etxerateko bozeramale lanak aipatzen dira helegitean salaketa jartzeko unean. Hori dela-eta, Etxeratek prentsaurrekoa eskaini zuen Bilbon, Joneren eta Etxeraten kontrako kriminalizazio saiakera salatzeko.

## **4. KARTZELETAKO BIZI BALDINTZEN OKERTZE OROKORRA**

2016eko urtean zehar, hainbat borroka piztu ziren espetxe ezberdinetan, gehien-gehiena baldintzen gogortze berrien ondotik. Urraketa ezberdinen aurrean, espetxe horietan dauden euskal preso politikoek beti gogorrek diren borroketan sartzea erabaki zuten, oinarrizko eskubideak defenditzeko.

Komunikazioetan jasan behar ditugun traba guztiengatik, oso zaila da urraketen zerrenda osoa egitea. Hona 2016eko urtean ezagutu genituen adibide batzuk.

### **Itziar Moreno euskal preso politikoaren isolamenduak protesta ezberdinak eragin ditu presondegi eta kaleetan**

Apirilaren bukarean, Fresnesko bizi baldintzen gogortzeak protesta bat abiatzera eraman zituen bertako emakumeen moduluko presoak. Preso sozialek hasi zuten blokeoari bertan dauden hiru euskal preso politikoak batu ziren elkartasunean. Handik gutxira, maiatzaren 2an, protesta horren bultzatzaile nagusia izatea leporatuta isolamenduan sartu zuten Itziar Moreno euskal preso politikoa zehaztu gabeko iraupenarekin. Bi hilabetez luzatu zitekeen egoerak elkartasun eta protesta ekimen ugari eragin zituen kartzela berean zein beste batzuetan.

Entzutetsuena, Fresnes bertan gizonen moduloko bost euskal preso politikoek 20 egunez mantendu zuten gose greba.



Beste protesta batzuk burutu ostean, gose grebara batu ziren hiru presoetako bi maiatzaren 23an, besteak kartzelak eskaintzen dituen otorduak baztertzeko hasi zelarik. Meauxko kartzelan (970 Km) euskal presoek 24 orduko txandakako baraualdiak egin zituzten, eta Osnykoan (970 Km) txandakako baraualdiez gain, enkarteladak egin zituzten eta gutunak bidali kartzela horretako zuzendaritzari.

St. Martin de Re-n gutun bat bidali zioten Fresnesko zuzendariari, Justizia ministroari eta beste erakunde batzuei. Kanean ekimen asko izan ziren ere bai, horien artean, gutun bidalketak, kontzentrazioak Bilbon Frantziako enbaxada aurrean eta gutun bidezko interpelazioa enbaxadoreari, manifestazioak herri ezberdinetan, LAB sindikatuak deituriko lanuztea... Parisko Elkartasun Komiteak, bestalde, manifestu bat egin zuen publiko emakumezko presoen protestekin bat eginez eta elkartasuna adieraziz.

Mugimendu hori maiatzaren 31n bukatu zen, Itziar Moreno isolamendutik atera eta Fleury-ra berehala trasladatu zutenean.

### **Fleuryko emakume presoen aldeko elkartasun protesta**

Maiatzan, Fleury Merogiseko emakumeen presondegian (930 km) dauden euskal preso politikoen bizi baldintzak okerrera joan ziren hilaren 4tik. Patioko orduak murriztu dizkiete: egunean zehar 2 ordu baino gutxiagoko patio bakarra dute ordutegi alternatuarekin, horrek kiroldegira joateko aukerarik ez duten egunetan goizeko 11:00etatik ziegetan egotea suposatzen die, eta asteburuetan 26 ordu jarraian ziegetan itxita egotea dakarkie. Hori dela-eta, Euskal Herriko gutun bidalketa eta sinadura bilketa masiboa jarri da abian, euren egoera kartzela zuzendaritzaren aurrean salatzeko.

### **Protesta ekintzak Fleury-Merogis-en bertako presoak modulo berean batu ditzaten**

Hilabete berean, Fleury-Merogis-eko gizonen moduluan zeuden euskal preso politikoei elkartzeko dinamika bat abiatu zuten. Dibisio berean egotea eskatzen zuten, eta ez bi ezberdinetan, orduarte bezala. Lehen urratsa zuzendaritzari eta beste hainbat eragilei zuzendutako gutun bidalketa bat izan zen, kartzelatik astelehen eta asteazkenetan, eta kaletik modu masibo batez. Ekainaren 6an, 10 minutuko patio blokeo sinboliko bat egin zuten. Zuzendaritzak gauzak ez zirela



aldatuko esan zenez, beste urrats bat ematea erabaki zuten eta blokeo luzeago bat egin zuten.

Ondorioz, mitarreko zigorrak ezarri zizkien espetxeak, 8 eta 12 egun arteko iraupen ezberdinekin. Mitarretik atera ziren lehendabiziko presoek euren azken kideak mitarra utzi arte patiora ez ateratzea erabaki zuten. Abuztuaren 31n, ekintz ezberdinen ondotik, dibisio berean batuak izatea lortu zuten euskal presoek.

### **Tentsioak gora egin du Huelvako espetxean**

Irailean, Sebas Lasa euskal preso politikoa, jipoi bat jasotzearekin mehatxatua izan da. Euren senideek Etxerati jakinarazi diotenez, gimnasioko esterilla bat patiora ateratzeko egintza hutsalak, jipoi batekin behin eta berriz mehatxatua izatea ekarri dio Sebas Lasa euskal preso politikoa.

Egoera honen aurrean, moduloko burua edo beste edozein funtzionario arduradunen presentzia eskatu zuen Lasak, ohikoa bilakatu baita bere jarrerak arazoak sortzea gainontzeko euskal preso politikoei. Eskaera, ordea, ez zein aintzat hartua izan. Hori dela-eta, ziegak ixteko unean bere ziega propiora sartzera ukatu zen Lasa, ez bazuen arduradunen batekin jasotako mehatxuen inguruan hitz egitea lortzen. Bere eskaera gainontzeko kideengatik babestua izan zen. Azkenik, arestian aipaturiko funtzionarioaren jarrerak sortzen duen tentsioaren inguruan hitz egitea lortu zuten presoek kartzelako buru batekin.

Hurrengo egunean, Sebas Lasaren patio orduan esterilla bat atera zuten bertako euskal preso politiko guztiek. Istilu horiek gertatu ziren espetxe honetako euskal presoek larriki gaixorik direnen elkartasunez txandaka egindako gose grebaren testuinguruan.

### **Ibon Goieaskoetxea eta Alex Zobaran euskal preso politikoak borrokan Valence-ko espetxean**

Abuztuko hilaren hasieran, Ibon Goieaskoetxea eta Alex Zobaran euskal preso politikoak euren borondatez sartu ziren mitard-era (estatu frantsesean zigor ziegak jasotzen duten izena). Neurri honekin, Euskal Herriatik gertu den beste espetxe baterako trasladoa eskatu zuten, eta Valenceko espetxearen



baldintzak salatuz. Bi euskal presoek euren senideekin adostuta, asteroko bisitak bertan behera utzi zituzten abuztuaren 6tik, nahiz eta eskutitz eta telefono dei bidezko komunikazioak mantentzen zituzten. Horren bidez, dispertsioak euskal preso politikoei eta haien senideei eskaintzen zizkien bi aukera bakarrak salatzen zituzten: dispertsioak ezartzen duen arrisku ezarria eta higadura ekonomiko eta fisikoa jasan, edo eskubidez dagozkien bisitei uko egin.

Bestalde, kartzela horretako presoen artean tentsioa areagotu zen espetxe horrek duen izaera diziplinarioa dela-eta. Irailaren 25ean, matxinada bat antolatu zen, eta iraun zuen bitartean zenbait presok ziegetako giltzak eskuratu eta ireki ondoren, su eman zieten. Egoera horrek ez zien bi euskal preso politikoei fisikoki eragin, arestian aipatu bezala, mitardean aurkitzen baitziren. Haatik, zigor ziegan sartzen direnean euren objektu pertsonal guztiak ohiko ziegetan geratzen dira, horregatik, Alex Zobaranen ondasunak kiskalita amaitu zuten.

Bi hilabetez mitard-ean egon ostean, Ibon Goieaskoetxea eta Alex Zobaran euskal preso politikoak, Valencetik Arles eta Saint Martin de Ré espetxeetara lekualdatuak izan ziren hurrenez-hurren urriaren 19an.

## 5. IKASKETA ESKUBIDEAREN URRAKETA

Irailaren 12an, astelehena, Etxeraten ikasketa batzordeak kontzentrazioa deitu zuen Bilbon EHUKo ikasturte hasierako ekitaldiaren harira. Senide, sindikatu, irakaslego, PAS eta EHUKo ikasleek Euskal Herriko Unibertsitate publikoan eta euskaraz ikasteko euskal presoek duten eskubidea aldarrikatu zuten, legedian jasota dagoen eskubide hori EAEko agintariei bermatzeko eskatuz.

80. hamarkadatik, euskal preso politikoek EHUn egiten zituzten euren ikasketak. 2003. urtean, bertatik kaleratuak izan ziren, haien aurka jazarri zen aurretiko kanpaina mediatiko gogorrek bilatzen zuen bezala. Etxeraten ikasketa batzordearen aburuz, EHU eta EAEko agintariek eskubide hori bermatzeko egin dituzten gestioak ez dira nahikoak izan, eta EAEko erakundeen ezintasun politiko, akademiko eta legislatiboa agerian utzi dute bidegabeko egoera honekin bukatzeko.



2004an onartu eta Euskal Unibertsitateko Lege Sisteman jasotzen den pertsona guztien (bereizketarik gabe) ikasketa eskubidea ziurtatzeko eskatu zion batzordeak ekitaldian presente zen EHUKo errektoretzari. Halaber, lege hori bete gabe igarotako hamabi urteak salatu zituen, bere ariketa bermatu gabe. Horrez gain, ikasketa batzordeak EHUKo errektoretzari dei egin zion, bere oinarritzko funtzioa bete dezan.

Batzordearentzat, EHUK espainiako kartzeletan diren euskal presoei irakasteko debekua betetzen ari da, ezin izan baitu lortu Madrilgo Gobernuak exijitzen duen hitzarmena, presoak matrikulatu ahal izateko. Espainiar zein frantziar espetxe politikek euskal preso politikoak zigortzeko xedea dutela nabarmendu zuten: urruntze eta bakartze politikak, zigorren luzapena eta oinarritzko eskubideen urraketa ... Hezkuntzaren debekua testuinguru honetan kokatzen du ikasketa batzordeak. Eta presoak zigortzeaz gain, senideak ere zigortzen dituela nabarmendu zuen. Ikasketa batzordeak bere aldarrikapenak politika anker horiek gainditu eta kartzeletan ikasketa eskubidea bermatzeko erabakia adierazi zuen, urratuak diren beste hainbat eskubideetako bat.

Zentzu horretan eta xede hori lortzeko beharrezkoak diren neurri politikoak eta akademikoak hartzeko eskatu zioten EHUri, Hezkuntza Sailari eta Gasteizko Gobernuari. Orobat, hezkuntza eskubidearen bi arlo nagusiri heltzeko eskaera egin zioten:

-Espainiako espetxeetan dauden euskal presoek EHUn ikasteko behar den hitzarmena sinatzea.

-Gaurko bazterkeria eta disfuntzioak gaindituz, Frantziako espetxeetan dauden presoei EHUn ikasteko baldintza egokiak eskaintzea, kalitateko hezkuntza eta doakotasuna bermatuz.

## 6. HERIOTZAK

### **Gaizka Sopelana euskal iheslari politikoa zendu da**

Gaizka Sopelana euskal iheslari politikoa Azaroaren 2an zendu zen, 35 urte deserrian egon eta gero, Bilbo bere jaioterrira itzuli zen 2016ko abuztuan Kruzes ospitalean artatua izateko, larriki gaixorik baitzegoen.



## 7. ERAGILEAK – INSTITUZIOAK

### **Akordioa Nafar Parlamentuan**

Urt 24eko istripuaren ondotik, Etxeratek bere istripuen aurreko protokoloa abian jarri zuen; gertakaria salatzen prentsaurrekoa, mobilizazioak deitu eta Kartzela Zuzendaritzara bidaltzeko gutun ereduak erredaktatu zuen, senideen eskura jartzeko. Bere aldetik, Nafar Parlamentuak akordioa erdietsi zuen EH Bildu, Geroa Bai, Podemos eta Ezkerra alderdiei esker, salbuespeneko kartzela politikak -urruntzea barne-arbuiatuz. Era berean, Nafar Gobernuak bake, bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Idazkaritzak zauritutako pertsonari zein Olga Comesen sendiari elkartasuna helarazi zion.

### **Bake prozesua indartzeko 3. Foro Sozialean izan zen Etxerat**

Armagabetze ordenatu baten oinarriak finkatzea helburu, bake prozesua indartzeko hirugarren Foro Soziala ospatu zen urtarrilaren 30ean Gernikan (Bizkaia). Etxerat ere bertan izan zen. Bake Bidea, Uharan eta Gernika-Lumoko Batzordea elkarrekin antolatuta, nazioarteko hainbat hizlari bildu ziren Lizeo antzokian. Bi gai landu ziren: ETaren armagabetzearen buruzko baldintzak, batetik, eta Kolonbiako bake negoziazioak, bestetik. Euskal Herriko kasuaz aritu zen Brian Currin, eta armagabetze prozesuetan gizarte zibilak izan ezakeen egitekoaz Veronique Dudouet Berghof Foundationeko kideak eta Kristian Herbolzheimer Conciliation Resourcesen Kolonbiarako ekintzen arduradunak.

### **Etxeratek gutuna helarazi zion Frantziako Enbaxadoreari**

2016eko otsailan, Eusko Legebiltzarra bisitatu zuen Ives Saint-Geours Frantziako Enbaxadoreari gutuna helarazi zion Etxerat Elkarrekin. Bertan, Ibon Fernandez Iradi eta Lorentxa Guimon larriki erri diren euskal preso politikoen berehalako askapena eskatu diogu, biek bizi duten hil ala biziko egoera dela-eta.



## **Etxeratek itxaropenez hartu du Gipuzkoako Batzar Nagusiek dispertsio politikei adierazitako gaitzespena**

Hilabete berean, Podemos eta EH Bilduk proposamena egin zuten Gipuzkoako Batzar Nagusiek oraindik eratu gabe den Espainiar Gobernuari dispertsioa politikak baztertu ditzan eskatzeko. Akordioak, EAJren babesa jaso zuen azkenean. Konpromiso eran gauzatu den lorpen berri hau, Nafar Parlamentuan erdietsitako akordioa, eta Nafar Gobernuko Bake eta Bizikidetzak idazkariak dispertsioak eragindako urteko lehen istripuaren harira helarazitako elkartasunaren katera batzen da. Horrek itxaropena ematen digu.

## **Europarlamentarien delegazioa kezkatuta euskal preso politikoen eta haien senide eta lagunen egoerarekin**

2016eko otsailan, hiru alderdi ezberdinetako zazpi europarlamentarik Euskal Herria bisitatu zuten estatu frantsesak eta espainiarrak ezartzen duten dispertsio politikaren urraketek senide eta lagunengan sortzen dituzten ondorioak aztertzeko. Hainbat eragile politiko eta sozialez gain, Etxeratekin ere bildu dira. Bisita hori Etxeratek 2015eko martxoan Bruselara egindako bidaian zuen jatorria.

Egun horietan bildutako informazioarekin egindako txostena aurkeztu zuten Bruselaren apirila hasieran egindako prentsaurrekoan, gomendioak eta ondorioak jasoz. Beste gauzen artean, izaera politikoa duten euskal presoek giza eskubideekiko errespetua ez doala ETaren biktimen giza eskubideen errespetuaren aurka dion, eta gobernu espainiar eta frantsesari salbuespeneko politika diskriminatzaileak aplikatzeari uzteko eskatzen die.

Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoek osasun eskubidea arriskuan dago, eta hauen tratamendurako aukerak eta kontrol medikoak bereziki kezkatzen ditu txostena erredaktatu duten europarlamentariak. 7/2014 Lege Organikoak, 2008ko uztailaren 24ko 2008/675/JAI Marko Erabakiaren helburuak eta irismena mugatzen ditu. Lege horretan aurreikusitako salbuespenek, kondenen luzapena baimentzen dute, eta beraz, askatasun eskubidea urratu.

2015ean estatu frantsesean aurkeztu diren baldintzapeko askatasun eskaerak sistematikoki bota dira atzera arrazoi politikoak argudiatuz. Harrigarriki, su etenaren aurretik aurkeztutakoak ordea, errazago izan dira onartuak.



Etixerat elkarteari oso deigarria egin zitzaion txosten horren inguruan sortu zen isiltasun mediatikoa. Estatu espainiarrean ematen diren giza eskubide urraketen inguruan hitz egiten duen txosten batek komunikabideetan tarterik ez izatea, bi euskal hedabidek informatutakoa kenduta, eta beste komunikabideren baten aipamen partzialen bat salbuetsita.

Txosten hau aurkezterakoan, europarlamentariak aditzera eman zuten kartzela politikaren mendeku izaera, eta tortura bezala izendatu zuten gaixotasun larri eta sendaezinekin kartzelan mantentzen dituen presoek egoera. Bere gomendioetan, bake prozesua bermatzeko saiakera zintzo batek gidatuak direla aitortzen du europarlamentarien taldeak.

### **Dispertsioaren aurkako udal akordio berria Gasteizen**

2016eko maiatzaren, Gasteizko Udal Batzarrak dispertsio politikaren eta bere ondorio zuzenen –kasu honetan haurrak eta adingabekoen gainekoak- aurkako mozioa atera zuen aurrera. EH Bildu, EAJ, Podemos eta Irabazi alderdien botoei esker atera zen aurrera, PPk eta PSEk aurka bozkatu dutelarik. Beste udalerrietan bezala, egungo kartzela politikaren ondorioen inguruko mozio bat batzarrean aurkeztea proposatu zien Etxeratek Gasteizko udal alderdiei.

Proposamen horrek, zehazki, dispertsioak adingabekoen gain dituen ondorioak jasotzen zituen, baita haurren eskubideei larriki eragiten diela. Proposamena EH Bilduk jaso eta mozioa aurkeztu zuen. Bertan, dispertsio politikaren desaktibazioa eskatzen da, senideentzako kondena eta zigor gehitua baita. Horrez gain, udalaren konpromisoa jasotzen da Gasteizko presoei jarraipena egiteko, bereziki eta arreta handiagoarekin adin txikiko seme-alabak dituztenei. Hirugarren puntuak akordioa Espainiako zein Frantziako gobernuei jakinaraziko zaiela jasotzen du.

Herritarren txandan, Felipe Bravo, Zigor Bravoren aitak, hartu du hitza, zeinak dispertsioa eta horrek haurrengan dituen ondorioak azaldu ditu, baita Jon Ligüerzanak ere, Etxeraten Arabako koordinatzaileak.

### **Iruñako Udal Batzarrak dispertsio politikaren aurkako mozioa onartu du**

Dispertsio politikaren eta bere ondorio larrien aurkako adierazpena eskatu zuen Etxeraten indar politiko ezberdinekin



izandako bileretan. Azkenean, EH Bildu alderdia izan zen elkartearen proposamena jaso zuena eta mozio bat aurkeztu zuen ekainaren 2an. Testuaren lehen puntuan batzarraren elkartasuna adierazten zen istripua jasandako sendiarekin, baita dispertsioaren biktima guztiekin ere. Jarraian, salbuespeneko kartzela politikak baztertu eta eta Espainiako Gobernuari hauen indargabetzea eskatu zuen. Azkenik, nafar hiriburuko udalak, hiri horrekin errotuta dauden presoak Iruñako kartzelara lekualdatuak izan daitezen gestioak egitera konprometitu zen.

EH Bildu, Geroa Bai, Aranzadi eta IE alderdien botuei esker atera zen aurrera mozioa. UPN eta PSNk aurka bozkatu zuten. Saioan Ana Fernandezek parte hartu zuen. Bere ahizpa dispertsio politikak eragiten dituen hainbat istripuetako batean zendu zen 2003an. Bere egoera eta sahiestu zitekeen istripu batek sortutako sufrimendua azaldu zituen. Etorkizunari heltzeko edozein sufrimendu baztertzeko beharrean oinarritu zuen bere hitz hartzea. Nork parte hartuko zuen jakin zuenean, UPNk Libertad Ya taldearen parte hartzea eskatu zuen. Bere bozeramaleak Ana Fernandezek ostean parte hartu zuen. Hizkera baketsua erabili zuen arren, dispertsio politika defendatu eta bere ondorioak justifikatu zituen.

## **Eusko Legebiltzarrean azaldu da Etxerat**

Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako legez kontrako errepresio-egoeretan Giza Eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko legearen proiektuan parte hartu zuen elkarteak ekainaren hasieran. Izan ere, zio politikoa duen salbuespeneko politika batek sortutako biktimen aitortzaren alde lan egiten du, eta bere ondorio zuzenak euskal presoek senide eta lagunen gain erortzen dira, dagoeneko 16 hildako sortuz. 16 biktima horien errekonozimendua bilatu zuen elkarteak bere parte hartzearekin.

Etxerateko bozeramale batek eta Rafa Isasik parte hartu zuten, azken honek senide bat galdu zuen Ourenseko kartzelara bidaiatzen ari zela. Helburua, dispertsio politikak sufrimendua sorrarazten duela azaltzea izan zen, eta hortaz biktimak sortzen dituela, eta horiek aitortuak izan behar direla. Dispersio politikak senideei suposatzen diena azaldu eta hainbat datu eskaini zituen. Zentzu honetan, aditzera eman zen



iaz Loiolan Urkullu Lehendakariari entregatutako txostena kostu ekonomikoen inguruan.

Ondoren, Rafa Isasik hartu zuen hitza. Isasik bere anaiaren bizia eta euskal preso politiko baten amaren bizia eraman zuen istripua ekarri zuen gogora: “Fontso 26 urteko bat zen, zeinak ama bat haren alaba ikustera eramatea erabaki zuen”. Bere heriotza nola gertatu azaldu ostean, horretan “istripu arrunt” bat ezin duela ikusi aitortu zuen. 27 urteko oinazea ekarri zuen gogora Isasik, eta dispertsio politikaren amaiera eskatu zuen. Etxeratek biktima izaeraz Nazio Batuen Erakundeak Batzar Orokorrean, 1985ean, 40/34 ebazpenean esandakoa nabarmendu zuen: “Biktimatzat, kalteak, lesio fisiko zein psikologikoak barne, sufrimendu emozionala, finantza-galera, edo bere oinarrizko eskubideen urritze funtsezko bat izan duten pertsonak hartzen dira, estatu kideetan egungo legedi penala urratzen duen ekimenean edo beraien omisioaren ondorioz, boterearen gehiegikeria gaitzesten duena barne”. Orobat, motibazio politikoko euskal presoek Giza Eskubideen inguruko Europarlamentariaren txostena ekarri zen gogora, hain zuzen, dispertsio politika eskubideak urratzen dituela ondorioztatzen duena. Amaitzeko, dispertsio politikak sortutako 16 biktimak lege horren baitan sartu behar direla adierazi zuen elkarteak.

### **Dispertsioaren hurrek txostena ezin izan zion eskura eman Etxerat elkarteak Urkullu Lehendakariari**

Euskal preso politikoen senide eta lagunen elkarteak ezin izan zion “Dispertsioaren Haurrak” txostena Iñigo Urkullu Lehendakariari eskura eman abuztuaren 1ean, Loiolako (Azpeitia) San Inazio ospakizunean. Duela urte batzuetatik hona, Etxeratek kontzentrazioa burutzen du basilika parean, eta ondoren, dispertsio politika eta haren ondorioen inguruko txosten ezberdinak entregatu izan dizkio Lehendakariari.

Oraingoan, dispertsio politikaren ondorioak bizitzera derrigortuak diren haurren egoeraz diharduen txostena eman nahi zion Etxeratek Urkulluri. Haatik, Urkullu agertu baino minutu batzuk lehenago protokoloko arduradunek elkarteari jakinarazi zioten aurreko Lehendakariak ez zuela Etxerat hartuko txostena jasotzeko, bere ordean, idazkari batek jaso zuen dossiera. Uko hau Etxeratek salatua izan zen komunikabideen aurrean. Elkarteak “oso larritzat” jo zuen Lehendakari bezala



Urkulluren jarrera, horrelako ezohiko keinu batekin dispertsioa pairatzen duten adingabekoen eskubide urraketei bizkarra eman ziola ulertuz.

Ordea, Etxeratekin egon zen Eneko Etxeberria Azpeitiko Alkatea, zeinak harridura eta kezka azaldu zuen gertatutakoagatik. Lehendakaritzako langileek azken unean jakinarazi zioten Etxerati Urkulluk elkartearen ordezkarien eskuetatik txostena hartzeko ukoa; idazkari batek hartu zuen bere ordeza.

### **Etxeraten konzentrazioa Eusko Jaurlaritzako ordezkarien aurrean**

Urtero legea, elkarretaratzea egin zuen Etxeratek Arantzazun irailaren 9ean, Gipuzkoako patroia egunean, eskualde horretako aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkarien presentzia baliatuz. “Dispertsioaren haurrak” txostena entregatu zion elkarteak Urkullu Lehendakariari, zeinak Loiolan abuztuaren 1ean ez bezala, oraingoan Etxerateko bozeramaleen eskuetatik hartu zuen. Horrez gain, komunikabideak aurrean zirela, egungo kartzela politikaren inguruko solasaldi labur bat mantendu zuten ordezkariak eta Urkulluk. Lehendakariaren aburuz, Etxeratek badaki “presoen afera haiek egiten duten lan guztia”. Elkarteko bozeramaleak lan hori eskasa dela erantzun zion, dispertsioa oraindik ere mantentzen delako, senideei presioa eragiteko funtzioarekin.

### **EH Bildu eta Etxerat zein preso gaixoen senideen arteko bilera**

Irailaren 5ean, larriki eri diren 10 preso gaixoen senideak eta Etxerat, EH Bilduko ordezkariekin bildu ziren, alderdi honek eskatuta. Positiboki baloratu zuen elkarteak bilera. Bertan, senideek presoen egoera azaldu zuten, eta legeak aintzat hartzen dituen askatasun neurriak gobernu espainiar zein frantziarraren aldetik blokeatuak izatea dakarkien laztasuna transmititu zioten EH Bilduri. Elkarteak, une honetan egiten ari den lanaren inguruan informatu zuen EH Bildu, eta egungo espetxe politikaren salbuespeneko neurrien desaktibazioarako konpromezu aktiboa eskatu zion. Neurri horien artean, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten euskal preso



politikoak espetxean mantentzea dago. Gainera, gehiengoa, euren senideen bizitokietatik urrunduak daude.

### **Eragile politiko, sozial eta sindikalekin kontaktu erronda**

GUE/NGL europako talde parlamentarioak dispertsioa eta bere ondorioen inguruko txostena aurkeztu ondoren, Etxerategen bilkura erronda bat jarri zuen abian txostenaren erredakzioaren aurretik europarlamentari talde honekin bildu ziren indar politiko, sozial eta sindikalekin. Izan ere, Etxerategen iragarria zuen txostenaren inguruko ondorioen iritziak jasotzeko kontaktu ezberdinekin bilduko zela. Helburua, EAE eta Nafarroako parlamentari eta eragile sozial zein sindikalekin, jasotako informazioa erkatzea zen, joan den apirilean aurkeztu zen txosten bat garatzeko. EAEn, UPyD eta PP alderdiak europarlamentariekin biltzera ukatu ziren. Nafarroan, PPz gain, UPN, PSN eta Nafarroako Gobernuako presidente ohi Juan Cruz Alli ere haiekin biltzera ukatu ziren. Bilera horietan parte hartu zuten eragileez gain, beste batzuekin ere biltzea eskatu du Etxerategen, elkarrekin dispertsio politikaren desaktibazioa ahalbidetu dezaketen hasiera puntuak topatzeko helburuarekin.

### **Bizkaiko Batzar Nagusietan izan da Etxerat**

Euskal preso politikoen senideak diren 185 adingabekok pairatzen dituzte Bizkaian dispertsio politikaren ondorioak. Irailaren 28an, Herriarren Hartu Emaneko Batzordean, Bizkaiko Batzar Nagusietan azaldu zen Etxerat 185 haur eta nerabeen egoeraz berri emateko: euren kartzelaturako senideak ikusteko ehundaka kilometro bidaiatzeko inposizioa eta horren ondorioak haien garapen pertsonal, sozial eta afektiboan; osasunean eta eskola errendimenduan. Agertzean Etxerategen bozeramaleak eta bi senidek hartu zuten parte: 21 urteko Olatz Iglesias, hilabete gutxi zituenetik dispertsioa pairatzen, eta Maider Viso, dagoeneko 13 urte dituen eta jaio zenetik dispertsioa pairatu duen neskato baten ama.

Minutu gutxi batzuentzat horren bidai luzeak egitearen krudelkeria (bere kasuan Paris, Madril, Alacant) nabarmendu zuen Olatz Iglesiasen bere lekukotzan, eta nola bidai luze hauek bere bizitzako alor guztietan eragina duten, baina batez ere, urruntzeak haurtzaro eta nerabezaroan horren beharrezkoak diren lotura afektiboak zenbat kaltetzen dituen azpimarratu zuen; bere kasuan, bere gurasoekin. Horrez gain, bere baino gazteagoa den ahizpa txikiak egun gauza bera pairatzen ari dela gogorarazi zuen.



Bere aldetik, Maider Visok, desplazamendu hauek ume txiki batekin egin behar izateak suposatzen duena azaldu zuen (bere kasuan Cordoba eta Castelló), muturreko bero edo hotza pairatzea, txikienetan ohikoak diren zorabioak edo gaixotasunak, etxetik urruti egoteak nola areagotzen dituen zailtasun hauek. Klasera erregularri huts egiteak zer dakarren azpimarratu zuen, maiz gertatzen den egoera, kartzelak vis a visak astegunetan jartzen dituenengan. Etxerateko bozeramaleak dispertsio eta urruntzearen datu orokorrak azaldu zituen, helduek bezala, dispertsioaren ondorioak pairatzen dituzten haurren egoera nabarmenduz. Haur hauek erakundeek aldetik jasaten duten utzikeria salatu zuen ere bozeramaleak, gainontzeko senideak bezala.

Etixeraten lekukotzen ostean, alderdi ezberdinek hitza hartu zuten. Alderdi Popularrak soilik eskatu zituen baldintzak haurren eskubideak urratu eta adin txikikoak oinazera zein dispertsioaren ondorioak jasatera kondenatzen dituen egoera bati amaiera jartzeko. Haatik, EAJ, EH Bildu, Podemos eta PSEk dispertsioa arbuiaitu zuten, eta adin txikikoen gaia lantzeko borondatea erakutsi – nahiz eta erakunde horren mugak aitortu zituzten -. PPk, ordea, haurren senideek barkamena eskatu, damutu eta justiziarekin kolaboratu behar dutela adierazi zuen. EH Bilduk dispertsioaren zigor izaera nabarmendu zuen, eta egungo kartzela politikak ez duela birgizarteratze funtzioa betetzen adierazi. Podemosek, bere aldetik, delitu indibidual batek zigor kolektiboa jasotzea onartezina eta demokraziaren aurkakoa dela aitortu zuen.

## **Foro Sozial Iraunkorra**

2016eko urrian, Aieteko 5. Nazioarteko Konferentziarekin kointzidituz, Foro Sozial Iraunkorra aurkeztu zuen Bake Prozesua indartzeko Foro Sozialak. Gizarte zibilean jarri zuen atentzioa lehenengoak. Izan ere, Foro Iraunkorrarentzat, alderdiak ez dira bake prozesuak beharrezko dituen akordioetara heltzeko gai izan, hortaz, gizartea izan behar da prozesu honen motorra. Horrez gain, estatu espainiar eta frantsesaren jarrera oztopatzailea aipatu zen, erakundeei elkarriketa eskatuz lehenbailehen.

Nazio Batzarrean hartutako konpromisoari erantzunez bere sorreratik hartu du parte Etxeratek foroan. Honek, presoak, iheslariak, bizikidetzak eta armagabetzea ditu bere bi gidalerro nagusitzat, lehenengo biek Etxeratekin zerikusi zuzena edukiz. Euskal gizarteko alor ezberdinetako hamalau



organismok eta hamalau norbanakok osatzen dute Foro Sozial Iraunkorra gaurkoz, nahiz eta parte hartze gehiagora zabalik dago: ELA, LAB, CCOO ETA Steilas sindikatuak; Bake Bidean, Egiari Zor, Sare, Etxerat, Ahotsak, Uharan, Paz con Dignidad eta Antxeta Irratia organismoak: Juanje Soria, Iñaki Lasagabaster, Nazario de Oleaga, Aitzpea Leizaola, Iñaki González Murua, Iñaki Olalde, José Luis Úriz, Andoni Serrano, Begoña Ugarte, Carlos Aitor Yuste, Roberto Oiz, Fernando Vaquerizo, Txemi Pérez eta Fernando Armendariz. Gonbidatu bezala, Nazioarteko Kontaktu Taldeko kideak, EH Bilduko ordezkariak, Elkarrekin Podemos, PNV eta UGT izan ziren.



## **Dispertsioaren aurkako mozioak onartu dira Berriz, Gasteiz eta Etxarri-Aranatzeko udaletan**

Azaroaren 19an aldibereko bi istripu izan ziren; Huelva eta Mansillako espetxeetatik bisita egitetik zetozen 7 senide eta bi gidari kaltetuak izan ziren bi ezbeharretan. Horren ondorioz, dispertsioaren aurkako mozioak aurkeztea eskatu zuen Etxeratek kaltetuak izan ziren senide eta presoan udalerrietan. Berrizen aurkeztu zen lehenik, eta onartua izan da asteazken honetan, hilak 21, EAJ eta EH Bilduren aldeko botoekin eta PSEren abstentzioarekin.

Abenduaren 22an, Etxarri Aranatzeko aurkeztu eta onartua izan zen PPko zinegotziaren kontrako boto bakarrarekin: “Bost axola dit batak zein besteak” – istripua izan zuen pertsonari (Etxarri Aranatzeko bizilaguna) eta honek bisitatzen zuen presoari erreferentzia eginez –“Esan diezaiotela euren kartzelatutako senideari egin dezala egin behar duena hurbildua izan dadin”, adierazi zuen Alderdi Popularreko zinegotziak.

23an, mozio bera Gasteizko udalean izan zen aurkeztua. Kasu honetan, testuak Natividad Junkoren oroimena eta omenaldia hartzen zuen bere baitan, 2007ko abenduaren 25ean zendutako dispertsioaren biktimetako bat. Mozioaren alde bozkatu dute EAJ, EH Bildu, Podemos eta Irabazik. PPk eta PSEk aurka egin dute, “Nanclares bidea” ezagututakoaren alde eginez, dispertsioak sorturiko egoeraren irtenbide bezala. Erantzunen txandan, Etxerateko ordezkaria hauengana zuzendu da, eta dispertsioak haien eskubideak urratzen dituela uste duten galdegin die, eta kasu horretan, hori gainditzeko zer pentsatzen duten egitea, baina ez du erantzunik jaso.